

Ilustrazioa Kristina Fernandez



Idazleari buruz...

Ea idazle eskolan korapiloak hitzen bidez askatzen ikasten dugun. Eta korapiloak utzitako hutsunea betetzera bagoaz, ahal dela gozatuz eta gozatzeko izan dadila.

Gure Lopez de Arbinga Berasategi

Amua irentsi, badaezpada

Goizean goiz, arrandegira sartu eta hiru lagunek protokoloak betetzeko egina zuten ilara luzean azkena jarri naiz. Erakusleihoaz kanpora, pareko zuhaitzari lotuta zain zegoen txakur txiki bati begira, neure burua bisigu biren ondoan ikusi dut kristalean erdi islaturik. Bat-batean otu zait, pertsonen eta beren ardurapeko txakurrek antza izaten dutela esan ohi denez, asmatu ahal izango nuela erakusmahaiaren zeudenetatik zein arrain adoptatuko nukeen. Segituan bata bestearen atzetik etorri zaizkit burura familiakoak, lagunak eta etsaiak; herriak eta herrialdeak. Eta parez pare neukan itsaskiari erreparatu diot.

Otarrairak, 120 euro. Gure ozeano honetan –eta ari naiz, oro har, kaukasoarrak gehiengo gaituen munduaren partetik handienaz– pertsona zuzenak otarrairak bagina bezala bizi izan gara, eta kiloko 120 euro balio dugun ustetik erreparatu diegu munduko gainontzeko biztanleei, bizitza askoz merkeagoak dituztenez.

Abakandoak, 45 euro. Egoera ekonomiko estuxeagoan bizi izan direnak, agian, konformatuko dira abakando izatearekin; hala ere, haien bizia otarrairaren prezioan salduko balitz bezala begiratu diete beste kolore batekoei, haiek baino pobregoei edo ai!... zoritxarreko gerra ezagutzen duten gaixo horiei.

Saltailea angula sasoiak hizketan aritu da. Nola jakin, otarrairen populu noblean zenbatek amestu duten angula izatea, etxeko intimitatean inork ikusten ez dituenean edo korrika ari diren bitartean hausnarrean. Areago, ez ote da ezinezkoa jakitea zenbatek zituzten eginak planak politikan, enpresan, ikerkuntzan, interneten, angula bilakatzea egingarri izan zedin, eta plan horiek zer preziotan gauzatu ziren. Gaziak dira perspektibak, eskusibotasuna ez baita merkea; trukean sakrifizioa eskatzen du, eta ez bakarrik interesatuarena. Aldiz, eta hori da kezkatzekoa, inguratzeko duen ekosistema osoa jarri ohi du kolokan, larrialdi klimatikoak etengabe gogorarazten digunez.

Eztarrian azkura sentitu dut, eztulari eusteko larri.

Kontuak zer diren, izaki ezdeus batek eragin du tsunamia. Hasieran, otarrairak ohiko aldaretik kritikatu genuen txinatarren jarduna eta hartutako neurri denak desegokitzat jo genituen gehiegizkoak zirelakoan, demokrazia kontuetan adituak garenez; ezeztapen fasean sartu ginen gero, gure modukoei horrelakorik gertatu ezin zitzaigula sinistuta; finean, jaitsi ginen (edo jaitsarazi gintuzten) gure oinarritik eta besteek lehenago hartutako neurriak kopia genituen.

Hiltzeko beldurak berdinduta eta zortzietako txalo za-

parrada eta kantuek bigunduta, irudi izan du, ispilu aurrean umil, gu ere ganbak baino ez gabela onartzekotan izan gabela; ez txikitari Gabon gauean jaten genituen noizbehinkako berezi haiek, ez, baizik eta mundu osoko jatetxe popularretan arrozarekin batera zerbitzatzen dituzten ganba arruntak. Ganbak, 13 euro.

Nire txanda iristear zela atera naiz arrandegitik, antropofagian ari nintzelakoan, zer arrain klase jan nahi nuen erabaki ezinean.

Arratsean, laguna eta biok betiko bidean atera gara paseo normal berrian eta nire burutazioen hariari bukaera arte lagundu diegu.

-Baina umiltasun molde horiek ahuntzaren gauerdiko lilurak baino ez dira izan, arrain-sardaren laguntzarik gabe bizitzeko ahalmena zorroztu ahala, askeago sentiarazten gaituzten itsaso honetan. Hala ere –bukatu dut–, angula izan nahi duenak gogoan izan behar luke bere etorkizuna kolokan dagoela. Gure munduak aldaketak bizi ditu, eta haiek bereziki tematzen ari dira sentiberak diren espezieekin. Ganbak, bistan denez, adaptatzeko gaitasun handiagoa dauka.

Esan nahi baita, munduko langileok aldaketa klimatikoaren larria baliatu behar dugula gutxi batzuk gehiengoaren kontura bizi ez daitezen.

-Ganbak? –harritu da laguna–. Badaezpada, ezta planktona ere! –harritu nau ni–.

-Badaezpada?

-Beldurra eta badaezpadakoak lagun minak dira, eta izua izurrite ere badenez, badaezpadako neurritz bete digute bizitza bat-batean. Zer gerta ere, agindutako guztiari men egin diegu, seguruago sentitzeak osasuntsuago egotea ekarriko balu bezala. Ezbairik gabe, erraz. Ur nahasitan arrantzan egin nahi duenari, bidea ondo marraztu diegu: menpekoago izateko prest gaude, seguruago sentitutako bagara.

Hasperen egin du.

-Ondo etxekotutako ontziko arrain gabela frogatu dugu; ur garbitan igeri egin ahal izatea, edo ipurdia garbitu ahal izatea nahiago bada, aske izatea baino garrantzitsuagoak dira.

Etxean bueltan, amua janda tonto ontzira erori banintz bezala sentitu naiz. Mostradorean 52 euroan salgai zeukaten hegaluza ere antzeko sentituko al zen.

Hiriko biztanleak ur gainean egonean irudikatu ditut, baikoitza bere burbuilan akaso, eroso flotatzen.

Eta sare pelagikoek erraz harrapatuko gintuzketela ulertu dut.